

noaua

**Ingemarreko langileak:
“Fede txarra nagusi
izan da prozesu osoan”**

Korrika, iruditari

**#A28 Emaitzak:
Usurbilen EH Bildu
nagusitu zen,
Gipuzkoan EAJ**

**Natali: “Diskoa entzun dutenen
kritikak oso onak izan dira”**



USURBILGO HAUR ESKOLA



0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO
2017, 2018 eta 2019 urteetan jalotako haurrei zuzendua

MATRIKULA EPEA:
maiatzaren 10^a bitarte!

- HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA: 7.30 -16.30
- EGUTEGIA: astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
- MATRIKULAZIORAKO HITZORDUA:
943 374061 telefono zenbakira deitu 8:30etik 12:00etara.

Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin bait diegu plaza eta ordutegia bermatu

Helbidea: Kalezar, 15 USURBIL Informazio gehiago: 943 374061 edo haureskola@udarregi.eus

ATE IREKIEN JARDUNALDIAK

ZATOK GU EZAGUTZERA!!

**maiatzak 11 eta 18,
ordua: 11:00 edo
maiatzak 15, 18:00**



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

www.lhusurbil.eus



Israel & Grecia

TALDE BIDAIA
Irteera 2019ko irailean

Lasarte-Oriatik, NOAOAk gidatua



943 37 36 13

info@noaa.eu

noaa.eu

Albiste iruditan

“Batak zein besteak gobernatu, pentsioak defendatu”

Mezu hau plazaratu zuten pentsiodunek, herriko hiru jubilatutako elkarteek (Aginagako Arratek, Santueneko Gure Elkarteak eta Usurbilgo Gure Pakeak) deituta apirilaren 25ean Mikel Laboa plazan egin zuten hileroko azken ostegunetako elkarretaratzean. Pentsio duinak lortu arte, mobilizatzen segitzeko konpromisoari eutsiko diote. Hilabete honi begirako bi hitzordu iragarri dituzte; maiatzaren 11n manifestazioak hiriburuetan eta hilaren 30ean elkarretaratzea 19:00etan Mikel Laboa plazan. Herritarrek deialdiotan parte hartzea animatzen dituzte.



Hilabete honi begirako bi hitzordu iragarri dituzte herriko hiru jubilatutako elkarteek; maiatzaren 11n manifestazioak hiriburuetan eta hilaren 30ean elkarretaratzea 19:00etan Mikel Laboa plazan.

Laburrean

Maiatzaren 6an, odol ematea

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak bi hilean behin deitutako hitzordua datarren astelehenean izango da. Maiatzak 6 dituenean, 18:00-20:30 artean, herriko ambulatorioan.

Maiatzaren 10ean, origami tailerra Sutegin

Sutegi udal liburutegiak antolatuta maiatzaren 10ean, 17:30-19:30 artean, 10 urtetik gorakoentzat. Izena aurrez eman behar da, maiatzaren 6a baino lehen liburutegian bertan.

Sagardo Eguna, maiatzaren 19an

Maiatzaren 19an ospatuko dugu 38. Sagardo Eguna. Ohi bezala, baserriko nahiz Gipuzkoako txoko ezberdinetako sagardoak dastatzeko aukera izango da giro ederrean.

noaia

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaia.eus ||| www.noaia.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaia.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Itsaso Oregozo.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietia, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue,


Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

Arreta bikaina

“Ikusiko duzue. Umearen aulkitxoarekin kalera ateratzen hasi orduko, jende ugari gerturatuko zaizue. Adinduak bereziki”. Halaxe ohartarazi gintuen lagun batek, artean amaren sabelean zela gure haurra.

Bingo. Alaba jaioberriarekin batera paseatzen dugunetik maiz akordatu gara gure lagunaren profeziarekin. Ezagunak, erdi-ezagunak eta guztiz ezezagunak direnak. Ez dira gutxi egunotan hurbildu zaizkigunak. Bitxia da jaioberriak sortaritzen duen interesa. Gure alde samurrena pizten du, eta polita da. Beste arlo askotan gizagabe hutsak garelako ziurrenik.

Kasu denetan antzekoak dira galderak edota aipame-

nak. Aurreko batean ordea, umea ezagutzera hurbildu zen emakume baten galderak jokoz kanpo harrapatu gintuen: “Osakidetzan edo ospitale pribatuan eduki al duzue?”.

Andatzako puntan elefante afrikar batekin topo egin izan bagenu, antzeko aurpegi ipiniko genukeela uste dut. “Osakidetzan, Osakidetzan”. Emakumeak ospa egin eta gero konturatu ginen badela bizimodu paralelo bat. Bat edo hamaika. Eta artean badela osasun sistema pribatu bat. Eta ondorioz, izan badela ospitale pribatuaren erditzen duenik ere. Guztiz zilegi dena. Ez gara nor hautu horren alde egin duena epaitzeko.

Ezusteke galderak osasun publikoari buruz hausnartzera

eraman gintuen. Profesional handiak topatu ditugu Osakidetzan. Horretaz jabetu ginen. Erditu aurretik, erditzean eta erditu ondorenean. Ospitalean nahiz anbulatorioan. Emaginarenean edota pediatriarenean. Arlo denetan.

Ondo zaindu beharreko eskaintza publikoa da. Hori ere ondorioztatu genuen. Baina ez dakit horren jabe ote garen. Osasuna eskubide unibertsal den aldetik, botere publikoek dagokie osasun maila hobea ziurtatuko duen zerbitzua eskaintzea. Azpiegitura onak ipiniz; bertako profesionalak zainduz. Modu egokian jardun daitezten. Itxaronaldiak murriztea bezain garrantzitsua baita gure osasunaz arduratzen direnak baldintza duinetan ari-

tu ahal izatea. Are gehiago orain, Osakidetzako langileek salatutako erasoaren kopurua handitu egin dela egiaztatu denean.

Sarean topatu ditut datuok. 2018an, Osakidetzak 94.000 pertsona atenditu zituen egunero. Batez besteko bat da. 60.000 Lehen Arretan atenditu zituzten eta 34.000 ospitalean. Guztira, 16 milioi kontsulta baino gehiago egin ziren 2018an EAEn.

Erasoena larria izanik ere, erabiltzaileen %95ak positiboki baloratu zuen asistentziaren kalitatea. Eta %60arentzat, arreta bikaina izan zen. Dagokionari: azken talde honetako erabiltzaileen ondoan ipini gure izen-abizenak.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | Itsaso Orbegozo | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

Ika-mika

Gutun irekia

Ursurbilgo Alkate Jaunari eta zinegotziei: egunon, idatzi honen bidez Txara-gainako erresidentziarentzako eraikin baimenen atzerapenak suposatzen dizkigun kalteak azaldu nahiko genituzke; pasa dira jadanik hiru urte 3.500 sinadura bildu genituela.

Aurreko plana atera berri da

eta dirudienez alegazio bat gertatu da proiektua gehiago atzeratuko duena.

Orain informatzen digute hiriko ekintza plana baimentzea falta dela, baita hirigintza proiektua baimentzea ere, eta hauek denbora luzea eramango dutela.

Badira 60 urte Usurbilek ez daukala erresidentziarik. Honen beharra nahitaezkoa

daukagu Usurbilgo 30 herritarrok, baita Donostialdeko eta Buruntzaldekoek ere.

Egoera honek bultzatzen gaitu gure indar guztiekin eskaera hau egiteko: epeak murrizteko zuen esku dagoen guztia egitea, aparteko lana egitea arlo honetan, behar den guztia egitea bihotzez eskertuko genizueke.

Honetaz aparte, daukagun

interes partaidetzarekin espediente kontsultatzeko eskaera egiten dugu, aztertu eta proiektuarentzako hobekuntzak proposatzeko horrela ikusiko bagenu. Milesker guztiarengatik.

Aginagako Arrate, Santueneko Gure Elkarte eta Usurbilgo Gure Pakea Elkarteak.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Ingemarreko langileak kaleratzeko akordioa erdietsi dute Galizian

Ingemarreko langileak kaleratu eta Atalluko lantegia ixteko akordioa sinatu du Galiziako plantako zuzendaritzak eta Usurbilen ordezkariarik ez duen langileen batzordeak (UGT-ko 3 ordezkari eta CIGeko 2). Enpresak berak martxoan aurkezturiko enplegu-erregulazio espedientea gauzatu du honenbestez. Gogoan izan, kaleratzeen eta Ingemar ixtearen aurkako greba mugagabea abiatu zutela langileek martxoaren 12an.



Kaleratzeen eta Ingemar ixtearen aurkako greba mugagabea abiatu zuten langileek martxoaren 12an.

ELA: “Zuzendaritzak bere xedea gauzatu du”

ELA sindikatuak gogor salatu du ohar bidez, Ingemarreko langileak kaleratzeko Galiziako zuzendaritzak eta langileen batzordeak hartutako erabakia. Langileei elkartasuna adierazteaz gain, eta lantegiak etorkizuna baduela ziur izanik, enplegu-erregulazio espedientea indargabetzeko lanean segiko dutela iragarri du aipatu sindikatuak.

“Zuzendaritzak bere xedea gauzatu” duela salatu du ELA sindikatuak ohar bidez. Oso larritzat jotzen dute, Usurbilgo Ingemarreko langileak kaleratzeko Galiziako zuzendaritzak eta langileen batzordeak hartu duten erabakia. Langileen batzordea UGTko 3 ordezkariak eta CIGeko beste bi ordezkariak

ELA

“Galiziako UGTk, zuzendaritzarekin batera, Usurbilgo langileen kaleratzea bultzatu du; zoritxarrez, CIGeko ordezkariak ere sinatu egin dute akordioa”

osatu dago. “UGTk, zuzendaritzarekin batera, Usurbilgo langileen kaleratzea bultzatu du; zoritxarrez, CIGeko ordezkariak ere sinatu egin dute akordioa. Hau deitoragarria da, Usurbilen ordezkariarik ez duten bi sindikatu horiek erabaki baitute Gipuzkoako langileak lanik gabe uztea”, diote ELA sindikatutik.

Onartezina dela diote Inge-

marreko zuzendaritzaren jarrrera. “Kudeatzaile hauek ez dute eskrupulurik, eta beren jokabideak jazarpen penala merezi du. ELAren ustez, Eusko Jaurlaritzako Industria Saila saiatu egin beharko litzateke langileekin batera enpresaren praktika hauek jazaritzen, baita Usurbilgo lantegiaren etorkizuna bermatzen”, diote ELAtik.

“Xantaia hau inoiz ikusi gabeak ginen”

Era berean, ELAk salatu duenez, “enpresak baldintza jarri duela kaleratzeagatik jaso beharreko kalteordaina kitatzeko: langileek hitz eman behar dute ez dutela auzibidera joko. Xantaia hau ere inoiz ikusi gabeak ginen”.

“Lantegiak etorkizuna duela ziur gaude”

Egoera honen aurrean, Usurbilgo langileekiko zenbait konpromiso iragarri ditu sindikatuak. Batetik, langileak babestea, “lantegiak etorkizuna baduela ziur gaude”. Eta horren alde borrokatuko dute, zuzendaritzak martxoan aur-

kezturiko enplegu-erregulazio espedientea indargabetzeko lanean segitzearekin batera. “Negoiazioan zehar bost txosten tekniko egin ditugu, eta hauen arabera iruzurra eta fede txarra nagusi izan dira prozesuan”, salatu du ELAk.

Testuinguru honetan Madrillgo Lan Ikuskaritzarekin bildu izan direla dio ELAk. Horrekin batera, “EAEko Gobernu Azpiordezkariari eskatuko diogu Gipuzkoako Ikuskaritzaren lankidetzat galdegin dezan”.

20 langabetu gutxiago martxoan

Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleraturiko azken datuen arabera, beherantz egin du Usurbilgo langabezia tasak. Martxoan otsailean baino (247) 20 langabetu gutxiago zenbatu zituzten, 227. Buruntzaldean ere 60 langabetu gutxiago, 3.000 martxoan. Eta Gipuzkoan ere 740 langabetu gutxiago, 31.218 joan den hilabetearen.

Ohikoa bilakatu den moduan, emakumezko langabetu gehiago egon arren, gizonetzko gehiago kontratatzen segitzen da.

Ate irekien saiok

Lanbide Eskolan

2019-20 ikasturtera begirako matrikulazio epea zabaldu aurretik, Lanbide Eskolaren proiektua eta ikastetxea ezagutzeko ate irekien jardunaldiak antolatu dituzte maiatzaren 11n eta 18an 11:00etan eta maiatzaren 15ean 18:00etan. Informazio gehiago: lhuribil@lhusurbil.eus 943 364 600 eskola@lhusurbil.eus

2020ko Euskaraldira begirako bilera

Urtebete barru ospatuko den Euskaraldiaren bigarren ediziora begirako lanketan murgiltzen hasteko bilera irekia deitu du iazko edizioaren harira osatu zen herritarren batzordeak. Biltzeko hitzordua maiatzaren 6rako finkatu dute, 18:00etan Potxoenean.

Emakume taldearen bilera

Martxoaren 8ko greba feministaren harira hasitako lanketari jarraipena emateko bilera irekia deitu du Usurbilgo emakume taldeak maiatzaren 7rako 18:00etan Potxoenean.

Hondakinak jasotzen hasia den erraustegiaren aurkako manifestazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreikusi moduan, apirilaren 25ean goizeko 10:00ak pasatxoan heldu zen zaborrez betetako lehen kamioia Zubietako erraustegira. Atzerapenik ez bada ekainerako guztiz eraikia eta udazkenerako martxan izango da.

Manifestazioa Lasarten

Lasarte-Oriako Aire Garbia herri plataformak manifestazioa deitu du maiatzaren 11rako (larunbata), 18:00etan aipatu udalerriko Okendo plazatik, "Bilketa eraginkorra bai, errausketarik ez!" aldarripean.

Hitzarmen urraketa

Gipuzkoako hainbat proiektu handietako lanetan eraikuntzako hitzarmena urratzen dela salatu du LAB sindikatuak. Urraketon aurrean hainbat salaketa aurkeztu ditu, tartean, Zubietako erraustegi-ko eraikitze lanen aurka.

Zubietako errauskailuaren eta Abiadura Handiko Trenaren kasuan, hitzarmenaren arabera ez delako ordaintzen. Hitzarmenak finkaturikoa urratzeagatik, UTE Zubiet eta UTE Aduna enpresa sustatzaileen aurkako salaketa aurkeztu du LAB sindikatuak azken hilabeteen. Salaketa hauek jada izan dute eraginik. Zubietako errauskailuaren kasuan, "enpresak da goeneko onartu eta ordaindu



Atzerapenik ez bada ekainerako guztiz eraikia egongo da errauste-planta eta udazkenerako martxan izango da.

MAIATZAREN 11N

Lasarte-Oriako Aire Garbia plataformak manifestazioa deitu du maiatzaren 11rako larunbata, 18:00etan aipatu udalerriko Okendo plazatik, "Bilketa eraginkorra bai, errausketarik ez!" aldarripean

dizkio langileari zor zizkion kopuruak".

Horrekin batera, Anoetako futbol zelaiko lanen kasuan, salaketak aurkeztu ditu LAB sindikatuak Lan Ikuskaritza.

Hitzarmena betearazi eta azpikontratazioa mugatzeko deia

Eraikuntza sektorean dagoen prekaritatea eta segurtasun gabezia agerian uzten dute gertakariok, LAB sindikatua- ren esanetan. Ez dira kasu isolatuak, sarritan errepikatzen dira halakoak obra publiko eta pribatueta. "Obretan eta zer-

bitzuetan azpikontratazio pila lotzearen erabakia politikoa da, langileen kontura kostuak aurrezteko helburuarekin hartua".

Obra hauetan erantzukizuna duten enpresa eta erakundeak (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala), nahiz erakundeon agintean den EAJ alderdiari Gipuzkoako eraikuntza hitzarmena betetzen dela bermarazi eta "azpikontratazioari mugak jar diezazkietola" galdegiten die LABek.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ETXETRESNEN
KONPONKETAK eta SALMENTA
MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER Usurbil

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Patrimonia
latetxea

• bazkariak EGUNERO
• afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 • © 688 690 361

Txirikordaren azken saioa

Etorkizunean Ugartondon kokatuko den belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa diseinatzeko apirila hasierarako iragarria egon baina bertan behera geratu zen azken parte hartze saiorako hitzordua finkatu du Usurbilgo Udalak. Etxebizitza honen erabiltzaile potentzialak izango diren gazte eta pentsiodunei zuzenduriko bilera irekia larunbatean, maiatzaren 4an, 12:30etan Sutegein. "Saio horretan proiektuaren ondorio nagusiak aurkeztuko dira, bai eta aurrera begirakoak ere", iragarri dute Udaletik.



Maiatzaren 4ko saioan "proiektuaren ondorio nagusiak aurkeztuko dira, bai eta aurrera begirakoak ere",

Ahalduntze taldeen balantze hitzaldia

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolaturiko emakumei zuzenduriko ahalduntze ikastaroen eta taldeen balantzea egiteko ordua heldu

da. Balorazioa egiteko, tailerren bideratzaileetako batekin, Pepa Bojorekin hitzaldia antolatu du Parekidetasun Sailak maiatzaren 8rako 18:00etan Sutegeiko auditorioan. "Zer da ahalduntzea? Zer nolako lana

egiten da talde horietan? Zein emaitza edo ondorio eragiten dute osasunean, edo norberaren aldaketa pertsonalean, edo genero harremanetan?", galdera hauen inguruan jardungo da hitzorduan.

Jaiei begirako hiru deialdi

Txupinazorako hautagaiak:

Proposamenak maiatzaren 17rako bidali kultura@usurbil.eus helbidera edo Potxoenean, liburutegian, Kiroldegian eta Udaleko kaxetan utzi.

43. Bertsopaper Txapelketa:

16 urtetik gorako usurbildarrentzat. Ekainaren 21a baino lehen aurkeztu behar dira inoiz argitaratu gabeko 6-10 bertso

gutun bidez, Usurbilgo Udala (XLII. Bertsopaper Lehiaketa) Joxe Martin Sagardia plaza, Usurbil 20.170 helbidera. Kartazal itxi batean lan originala eta hiru kopia egilea nor den adierazi gabe. Beste gutunazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak.

Jaietako egitarau diseinu lehiaketa:

Nahi adina lan aurkez daitezke maiatzaren 17ra arte Usurbil-

go Udala, Kultura Saila, Joxe Martin Sagardia plaza, Usurbil 20.170 helbidera. Diseinu lanerako testua Potxoenean jaso edo kultura@usurbil.eus helbidean eskatu. Testu horretan oinarritu diseinu lana. Lanak pdf formatuan aurkeztu euskarri digitalean (CD edo pendrive batean) eta paperean. Proposamen bakoitzeko bi kartazal aurkeztu, kanpoan egilearen izengoitarekin, kartazalaren letrarekin eta "Santixabel egitarau lehiaketa"

izenburuarekin. Barruan, A kartazalean parte hartzailearen datuak (izen-abizenak edo elkarrearen izena, IFK/IZK, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa...). B kartazalean diseinu lana, euskarri digital eta paperekoan izengoitarekin.

Hiru deialdion informazio gehiago jasotzeko:

943 371 999

kultura@usurbil.eus

Potxoenea.

ARRANDEGIA PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91 USURBIL

ORDUTEGI ETA TELEFONO BERRIA!
EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIK!

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

172.000 euroko udal laguntzak herritar nahiz eragileentzat

U surbilgo Udalak 2019ko diru-laguntzen deialdira aurkezturiko eskabideei erantzun die, behin behineko ebazpen proposamena kaleratu du. Guztira ia 172.000 euroko laguntza banatu asmo du Udalak, herritar eta eragileen artean.

Ebazpena behin betikoa izan aurretik ordea, alegazioak aurkezteko maiatzaren 8ra arteko epea zabaldu da orain. "Aipatutako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, ebazpen-proposamen hau finkoa izango da".

2019ko udal diru-laguntzen ebazpen proposamen hau, apirilaren 11ko udal dirulaguntzen



Parekidetasunari garrantzia handia eman zaiola nabarmendu dute udal iturriek.

batzordeak onartu zuen. Go-goan izan, lehenago, otsailaren 12an argitaratu zituen Udalak

diru-laguntzon oinarriak. Martxoaren 12ra arte luzatu zen gero interesdunentzat, eskabi-

deak aurkezteko epea.

Guztira ia 172.000 euroko diru-laguntzak banatu asmo ditu Udalak. Parekidetasunari garrantzia handia eman zaiola nabarmendu dute ohar bidez. "Batetik, eskatzaileak oinarriko premisa hori barneratzeko, eta, bestetik, diru-laguntzen zuriketan, kontuan hartu beharreko aldagaia izatea nahi dugu. Modu horretan argazki erreala jasoko dugu", azaldu du Alaitz Aizpurua Ogasun-zinetziak.

Ebazpen honen gaineko xehetasunak apirilaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, usurbil.eus atarian eta Udaleko iragarki taulan aurkituko dituzue.

2019ko udal diru-laguntzen behin behineko ebazpena

Gizarte zerbitzuen arloko diru-laguntzak

- Banatuko den diru-laguntza kopurua: 12.000 euro.
- Eskaera kopurua: 11.
- Eskatzaileak: Gipuzkoako elkarte desberdinak: Acabe, Adahigi, Ademgi, AECC, AGI, Agifes, Alcer, Atece, Atzegi, Gipuzkoako elikagaien bankua, Ortzadar elkarte.

Deserrotze eta bazterte sozialeko arriskuan dauden pertsonen sendeentzako diru-laguntzak

- Banatuko den diru-laguntza kopurua: 4.259,52 euro.
- Eskaera kopurua: 1.

Igogailuak ezartzeko diru-laguntzak

- Banatuko den diru-laguntza kopurua: 2.700 euro.
- Eskaera kopurua: 3 (gehienez ere 1.000 euroko laguntzak).

Kirol egitasmoak burutzeko

diru-laguntzak

- Banatuko den diru-laguntza kopurua: 52.689,66 euro.
- Eskaera kopurua: -Kirol taldeen ohiko diru-laguntza deialdian: 12 (Tximelleta, Andatza M.K.K., Baxurde Txiki U.T.T., Bazpi, Irisasi BTT, Beterri Sub, Usurbil F.T., Usurbil JK, Makax, Pagazpe P.E., Usurbil K.E., Zubieta P.E.).

■ Emakumeen eta gizonen berdintasun jardueretako deialdian: 0.

- Kirol egokituko ohiko jardueretarako: 1 (Pagazpe P.E.).
- Kultur edo bestelako elkarrekin kirol jarduerak egiteko: 3 (Einean Guraso Elkarte, San Praixku Guraso Elkarte, Santuenea Auzo Elkarte).

Norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntzak

- Banatuko den diru-laguntza kopurua: 6.535 euro.

■ Eskaera kopurua:

- Laguntza bereziak: 5 (eskatzaileak: Usurbil K.E., Usurbilgo giza probako eta herri kirolen antolakuntza).
- Taldeetako prestakuntza teknikoen laguntza: 1 (eskatzaileak: Usurbil F.T.).
- Kiroletako oinarriko osasun miaketa: 3 (eskatzaileak: Usurbil F.T., Usurbil K.E. eta Pagazpe P.E.).

Kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntzak

- Banatuko den diru-laguntza kopurua: 78.379,59 euro (80.000 euroko laguntza poltsa zegoen).
- Eskaera kopurua: 25 (87 ekintza proposatu dira, 84 lagunduko dira).
- Eskatzaileen artean: Jexus Artze K.E., Gipuzkoako Bertsozale Elkarte, Organoaren Lagunak, Nafartarrak, Bihurri Txiki ludoteka, Einean Guraso Eskola, Alkartasuna Koope-

ratiba, Ziortza G.E., Orbeldi D.T., Bidean Agiñarron Herri Elkarte, Antxomolantxa, San Praixku Guraso Elkarte, Kantu Taldea, Gure Esku Dago, Kalezarko Jai Batzordea, Irrii Abesbatza, Zubietako Eskolako Guraso Elkarte, Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarte, NOAUA! K.E., Aztarrika, Santuenea K.E., Hurbilago...

Nekazaritza eta abeltzaintzako diru-laguntzak

- Banatuko den diru-laguntza kopurua: 11.491,22 euro.
- Eskaera kopurua: 10 (eskatzaile bakoitzari kostu osoaren %50a, gehienez 2.000 euroko laguntza emango zaio).

Ingurumeneko diru-laguntzak

- Banatuko den diru-laguntza kopurua: 2.826 euro (5.000 euroko laguntza poltsa zegoen).
- Eskaera kopurua: 11.

Tapa eta aurkibideaK prest

Agur esan diogu 2018 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2018ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzaitezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2018



724-764 zenbakiak

BAZKIDEEN TXOKOA



noaua! euskararen aterpe

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu maiatzaren 4an

Lau Lasuak
kontzertua
Vivaldiren Lau urtarook
euskararen instrumentuekin


Usurbilen EH Bildu izan zen bozkatuena; Gipuzkoan EAJ

EH Bildukoa izan zen zerrenda bozkatuena igandeko hauteskunde gauan. Aipatu eta nabarmen-tzekoa da parte hartze datua; bozkatzera deituak zeuden usurbildarren %75,14ak parte hartu zuen hauteskundeotan.

Gorteetarako ordezkariak

Gipuzkoan EAJ nagusitu da, bigarren EH Bildu, atzetik PSE-EE eta Elkarrekin Podemos. Emaitzak aintzakotzat hartuta, 6 diputatuok ordezkatu dute Gipuzkoa Espainiako Kongresuan:

- Joseba Andoni Agirretxea Urresti (EAJ).
- Iñigo Barandiaran Benito (EAJ).
- Mertxe Aizpurua Arzallus



(EH Bildu).

- Jon Iñarritu Garcia (EH Bildu).
- Odon Elorza Gonzalez (PSE-EE).
- Pilar Garrido Gutierrez (Elkarrekin Podemos).

Senaturako ordezkariak

Senaturako hauteskundeetan ere, EAJk batu zituen bozka ge-

hien Gipuzkoan. Herrialdeak lau senatariok izango ditu:

- Maria Isabel Vaquero Montero (EAJ).
- Maria Mercedes Garmendia Bereciartu (EAJ).
- Luke Uribe-Etxebarria Apalategi (EAJ).
- Gorka Elejabarrieta Diaz (EH Bildu).

Hurrengo hitzordua, maiatzaren 26an

Udal, foru eta Europako hauteskundeak

- Apirilak 2-maiatzak 16: posta bidez bozkatzeko eskaera egitea Correosen.
- Maiatzak 6-19: posta bidez bozkatzea eskatu dutenei dokumentazioa helaraztea.
- Maiatzak 6-22: posta bidezko bozka bidaltzea Correos bidez.
- Maiatzak 26: hauteskunde eguna, 9:00-20:00 artean.

Zubietako Herri Batzarra

- Maiatzaren 7ra arte: hautagaien aurkezpena. Interesdunek idatziz dagokion Udalarri jakinarazi.
- Maiatzak 20: aurrez botoa emateko aukera Usurbilgo Udaleko Idazkaritzan, goizeko 08:00etatik 14:30era.
- Maiatzak 26: hauteskunde eguna, 9:00-20:00 artean Alamedegi etxean. Zubietar bakoitzak botu-txartelean bi hautagai hautatuko ditu.



G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA

SALEROSKETA & ALOKAIRUAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com

**Edertu
zaitez!**

new
ESTETIKA

**FOTODEPILAZIOAN
TARIFA FINKOA
PREZIOAK ZURE ESKURA!
KONPROMISORIK GABE
INFORMA ZAITEZ!**



Munalurra 2, Usurbil 943 571 680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal



**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 626 603 600

**UDABERRI BEGIRA
JARRI ZURE AZALA PREST**

- AURPEGI GARBIKETA
- GORPUTZ GARBIKETA
- PRESOTERAPIA
- PEDIKURA • MANIKURA,
- BETILEEN TINTAKETA IRAUNKORRA
- MIKROPIGMENTAZIOA
- LASER IODO • DEPILAZIOAK

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Eguerditan irekial
Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

9.00etatik 19.00etara zabalik

ileapaindegia

mistoa

**BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA**

KONTSULTA DOAN!

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951







Korrika Txiki Aginagako Eskola Txikian



Korrika Txiki Zubietako Eskola Txikian



Korrika Txiki Udarregi ikastolan



Korrika Txiki Usurbilen







Dantza Eguneko argazki gehiago topatuko dituzue noaua.eus/galeriak/ web orrialdean.

Eskola Txikien jaialdirako prestatzen

Ikasturte berezia dute aurtengoan Aginagako Eskolan. Aginagari egokitu zaio, urtero ospatzen den Gipuzkoako Eskola Txikien Festa antolatzea. Hitzordua finkatua dago jada; ekainaren 9rako atzera kontaketa betean dira. “Ilusio handiz ari gara antolatzen eguna. Denok ondo pasatzeko egun polita izan da dila. Gozatu egunaz!”, adierazi diote NOAUA!ri Aginagako eskolatik.

Iaz jaso zuten Oikian, jaialdia ospatzeko lekukoa estreinakoz. “26 eskola txiki daude Gipuzkoan eta guraso elkar-teen arteko koordinakunde bat”, adierazi digute Aginagako eskolatik. Zerrendan urtero txandakatzen doaz jaialdia, eskola txikidun herritik herrira. Aginagan egokitu zaie oraingoan.

Antolaketa lanetan hezkuntza komunitate osoa inplikatu da; motorra San Praixku Guraso Elkartea da. “Aginagak duen guraso elkartea oso aktiboa da, berehala erantzuten duena. Harremana oso gertukoa da” diote eskolatik eta haien ilusioak gainerakoak kutsatzen dituela. “Horregatik doa eskola aurrera ondo”, nabarmentzen dute.

Pentsa, dagoeneko soinu banda ere badu ekainaren 9ko festak. Hau ere guraso elkartetik sortua. “Badugu guraso bat musika munduan oso sartua dagoena. Abesti bat sortu zuen. Ikasleekin landu dugu eskolan. Grabaketa estudio batera joan eta abesti osoa grabatu dugu”.

Eskola Txikien topagunea

Ekainaren 9ko jaialdia, Gipuzkoak dituen 26 eskolen topagunea izango da. Eskola Txikien izaera aldarrikatzeko eguna, “eskola guztion arteko harremana bultzatzeko egun bat”, tokian tokiko ikaste-



Ekainaren 9an Eskola Txikien Eguna ospatuko dute Aginagan. Antolaketa lanetan hezkuntza komunitate osoa inplikatu da eta motorra San Praixku Guraso Elkartea da. Argazkia Korrika Txikian egina dago.

FESTA AGINAGAN

Ekainaren 9a Eskola Txikien izaera aldarrikatzeko eguna izango da, “guztion arteko harremana bultzatzeko egun bat”. Ikastetxeon errealitatea plazaratzeko eta hezkuntza eredu honen berezitasunak aldarrikatzeko

txeok duten errealitatea plazaratzekoa. Eskola txikietako hezkuntza ereduaren berezitasunak aldarrikatzekoa. “Taldea txikiak izanik, oso erraz helitzen gara ikasle bakoitzarengana. Badakigu ikasle bakoitza emozionalki, eduki aldetik zer mailatan dagoen eta horrek eskuhartzea errazten du. Familiakin oso gertu gaude”. Proiektua lan egiten dute, beti ere ikasleen interesak abiapuntu gisa finkatuta. Adin ezberdinetako ikasleak elkarrekin. “Adin aniztasunak duen alderdi positiboa da, elkarrengandik zenbat ikasten duten eta nola zaintzen diren”.

Eskola bizi batek herri bizi bat izatea sustatzen duen arren, elkar elikatu beharrak daude. Duela hainbat urte, eskola ixtear izan zuten. Egungo egoerak ez du une haren tankerarik; ikasle talde jende-

tsua dute Aginagan, bai bertan bizi direnekin, nahiz kanpotik bertara ikastera doazenekin. Baina badira egoera aldarazi dezaketen hainbat faktore etorkizunean, tartean jaiotze-tasa. “Eskolak funtzionatzen jarrai dezan, Aginaga berpiztu behar da”, nabarmendu diote NOAUA!ri. Erronka gehiago ere badituzte etorkizunera begira; eraikin propio baten falta dute, garraio aldetik mugikortasunerako dituzten zailtasun ekonomikoak, jangelako ratioak hobetu beharra...

Erakusketa eta bazkaria

Ekainaren 9ko jaialdirako giroten hasteko, gaurko nahiz atzoko kideen topaleku bilakatu nahi dute Aginaga maiaztaren 25ean. Horretarako, batetik, eskolaren historiari lotutako argazki erakusketa bat irekiko dute. Adi, erakusketarako argazkiren bat izan eta ekimen honetarako utzi nahiko bazenu aginaga@eskolatxikiak.org helbidera helarazi edo guraso elkarteko kideren bati eman.

Txartelak, Arrate tabernan

Erakusketaren irekieraren ostera, bazkaria antolatu dute Aginaga Sagardotegian. Txartelak maiaztaren 3a baino lehen eskuratu beharko dira Arrate tabernan. Bi menu izango dira

aukeran. Helduenean, mixta entsalada, bakailao tortilla, txuleta patatekin, gazta, menbrilloa, intxaurrak eta kafea izango dira, 26 euroren truke. Umeenean kroketak, oilasko izterra patatekin eta izozkia, 13,50 euroren truke.

Bolondresak behar dira

Antolaketa lan betean dira Aginagako Eskolan, baina noski, ekainaren 9rako bolondresak beharko dituzte lan ezberdinetarako; trafikoa zaintzeko, aparkalekuak kudeatzeko, egunean zehar antolatuko diren jolas eta tailerretarako, jan edana zerbitzatzeko... “Gu laguntza jasotzeko prest. Laguntza guztia ongi etorria izango da. Animatzen dena eskolarekin edo guraso elkarrekin harremanetan jarri”.

Asteotan emango dituzte guneen eta egitarauaren gaineko xehetasunen berri. Familia giroko eguna izan ohi da jaialdi hau. Hurrei zuzenduriko ekitaldiak nagusitzen dira goizetik arratsaldera luzatzen den egitarauan; jolasak, tailerrak... Eskola Txikien topagunea izan arren, jaialdia bertaratu nahi duen ororentzako irekia izan ohi da.

“Jakín izan banu honaino iritsiko nintzela...”

2017an sortu zuten Natali Taldea Ixak Arruti eta Natali Izagirrek. Ordutik, kantuak sortu eta entseatzeko aritu ostean, martxoaren hasieran plazaratu zuten lehen diskoa: Garena. Taldearen izena daraman, eta bertako kide den Natali Izagirrerekin izan da Noaua! diskoaren ondorenaz, bideoklipaz eta taldearen etorkizuneko asmoez solasteko.

NOAUA! Martxoaren hasieran Garena diska atera zenuten, nolako harrera izan du?

Natali Izagirre: Orokorrean oso ona, edo guri helarazi digutena ona behintzat. Txarra agian beraiantzat gordeko dute, ez dakit [BARREAK]. Ni oso pozik nago, dena ona izan da. Ea orain nora garamatzen, kontzertuak nahi dituzten edo, baina bai, oso pozik gaude.

Harrera on hori herrira mugatzen da, edo inguruan ere eman duzue zeresanik?

Gehienbat herrian bertan. Kanpokoek diskoaren inguruan esan didatenagatik oso ongi, baina oraintxe hasi gara. Kanpoan ezagutzeko goiz da oraindik, denbora pixka bat pasatu behar da. Gure abestiak entzun dituztenen kritikak oso onak izan dira.

Diskoa plazaratu arteko prozesua zenbat denborakoa izan da?

2017ko udan hasi ginen Ixak eta biok eta urtebete eman genuen diskoan dauden 9 kantak sortzen. Gero 2018ko udan elkartu ginen Olaia, Andres eta Gorkarekin eta kantak entseatzeari ekin genion. Irailean hasi ginen Kaki Arkarazorekin grabaketan Garate estudioan. Urte eta erdiko prozesua izan da. Nahiko luze joan da; grabatu genuenetik ere denbora dezente pasatu da kaleratu arte. Berez lehenago atera nahi genuen, baina azkenean



“Helburu handiak jarri eta lortuko ez banitu desilusio handia hartuko nuke. Oraingo proiektu honekin aurrera jarraitu nahi dut; kontzertuekin jarraitu eta ahalik eta jende gehienarengana heldu”.

NATALI

“Orain atzera begiratzen dut eta ez nuen sekula pentsatuko horren ongi aterako zenik dena. Ixakekin lanean hasi nintzenean disko bat ateratzea banuen buruan, baina ez nekien inoiz posible izango ote zen”

horrela gertatu da. Orain atzera begiratzen dut eta ez nuen sekula pentsatuko horren ongi aterako zenik dena. Ixakekin lanean hasi nintzenean disko bat ateratzea banuen buruan, baina ez nekien inoiz posible izango ote zen. Orain, behin dena eginda dagoenean, atzera begiratzen dut eta nire buruari esaten diot: jakín izan banu honaino iritsiko nintzela... Ea gero zer datorren.

“Zerbait aldatzera doa” bideoklipa herrian grabatu

zenuten lagunez inguratuta. Zenbait hilabete pasa dira ordutik, nola gogoratzen duzu grabaketa? Eta zer sentitzen duzu orain ikusten duzunean?

Niri pila bat gustatzen zait eta askotan ikusten dut gainera [BARREAK]. Niri ilusioa egin zidan herriko jendea eta lagunak hor izateak, babesa sentitu nuen eta batez ere, nire lanean sinesten dutela. Parte hartu duten aktoreek ere berehala eman ziguten baiezkua eta ez nuen espero, ez nekien zer esango zuten. Lagunen aktore lanak ere oso onak dira, benetako aktoreak dirudite [BARREAK]. Aginagako Eliza Zarrean ere grabatzen utzi ziguten inolako arazorik jarri gabe. Jende asko gerturatu zen eta nik oso ondo pasatu nuen. Koadrilakoak agertuko zirela pentsatzen nuen edo espero nuen behintzat, baina beste asko ez nuen uste agertuko zirenik eta oso pozgarria izan zen. Oso pozik nago denagatik [BARREAK].

“Atzerrian jotzera joan nahi nuke”

NOAUA! Zein dira zure helburuak musikaren munduan? Eta ametsak?

Natali Izagirre: Egia esan ez daukat helburu finkorik. Helburu handiak jarri eta lortuko ez banitu desilusio handia hartuko nuke. Oraingo proiektu honekin aurrera jarraitu nahi dut; kontzertuekin jarraitu eta ahalik eta jende gehienarengana heldu. Gero bigarren diskoa ateratzea gustatuko litzaidake. Jada kanta berriak sortzen ari gara. Hortik aurrera datorrena hartuko dugu. Benetan gustatuko litzaidakeen gauza bat? Atzerira joatea jotzera. Estatu Batuetara, Mexikora eta horrelako lekuetara joango nintzateke, hori amets bat egia bihurtzea izango litzateke.

Hizkuntzak ez du musika mugatzen, gustatzen zaigun edo ez beste hainbat faktoreren menpe dago.

“Hau zurea da, Natali”

2015ean egin zituen maletak Natali Izagirrek Estatu Batuetara au pair moduan lan egitera joateko. Bi urte egin zituen Ameriketara eta itzuli eta berehala sortu zuen taldea Ixak Arrutirekin batera. Kanpoan eginiko urteek utzitako eta musikari emandako momentuak ekarri nahi izan ditu gogora musikari gazteak.

NOAUA! Estatu Batuetatik itzuli zinenen hasi zinen serioa go musikan murgiltzen eta orduan sortu zenuten taldea. Han bizitakoak bultzatu zintuen horretara?

Natali Izagirre: Lehenago musika eskolan aritzen nintzen, musika eskolak antolatutako kontzertuetan eta abar. Inoiz ez nintzen ausartu beste ezertara. Agian lotsa ez da hitza sentimendu hori azaltzeko, konfiantza falta agian. Ez dakit oso ongi zer den. Ez nintzen sekula serio jarri zentzu horretan. Etxean kantak sortzen nituen eta musika eskolan jotzen nuen. Estatu Batuetan abesten ikasteko klaseak hartu nituen eta musika ugari eta oso ezberdinak entzun nituen. Bi urte etxetik kanpo egote horrek etorkizuneko nahiak birplanteatzeko aukera ematen du. Itzultzean oso gogotsu etorri nintzen eta zerbait egiten hasi nahi nuen. Erromeria talde batean hasi nintzen, zerbaitekin hasteko asmoz eta gero, segituan Ixakekin kantak asmatzen hasi nintzen. Ilusio horrekin urratsak ematen hasi nintzen. Gaurdaino.

Taldeak zure izena du. Nolan?

Ixakekin kantak asmatzen hasi nintzanean beti esaten zidan: hau zurea da, Natali. Letra guztiak nik asmatuak dira eta konposaketak batzuk nireak dira eta besteak Ixakenak. Orduan biok ulertu genuen taldearen aurpegia nik izan behar nuela. Abesti guztiak oso nireak



“Ixakekin kantak asmatzen hasi nintzanean beti esaten zidan: hau zurea da, Natali”. Argazkia: Ibai Arrieta.

NATALI

“Diskoa grabatu genuenean ez ginen gehiegi ezagutzen. Orain, behin grabaketa amaituta eta kontzertuak emanda bai sentitzen dut talde bat garela eta oso erlazio ona daukagu”

sentitzen ditut eta pentsatzen dut berak ere hala sentituko dituela. Horrela erabaki genuen eta oso harro nago.

Orain taldekide gehiago zarete hasieran baino eta nahiko leku desberdinetakoak gainera. Nola batu zaizkizue azken kideak?

Ixakek eta biok kantuak prest genituen eta Kakirekin jada hitz eginda geneukan irailean diskoa grabatzearena, baina jendea falta zitzaigun [BARRREAK]. Kanpoko jendearekin osatu nahi genuen taldea. Gehienetan herrikoekin osatu ohi dira taldeak. Guk, berri, hemendik atera nahi genuen, betikoekin betiko lekuan geratu beharrean. Kanpokoekin taldea osatzeak kanpoan aritzeko aukera gehiago ematen du. Lehendabizi teklaturako norbait

bilatzeari ekin genion eta Orozoko neska baten berri eman ziguten. Sare sozialetan begiratu nuen pixka bat bere lana eta esan nion Ixaki: Joooo Ixak asko gustatzen zait. Berarekin kontaktuan jarri ginen eta gure kantak asko gustatu zitzaizkion. Horrela lortu genuen Olaia gure taldera batzea. Bateria jotzeko Gorka geneukan pentsatuta, beste batzuk ere izan genituen buruan, baina Gorkak segituan eman zigun baiezkua. Azkenean, baxua jotzeko norbait falta zitzaigun. Egia da baxua jotzen dakien jende asko dagoela, baina gure musika jotzea ez da horren erraza eta maila jakin bateko norbait behar genuen. Horrez gain, gure musika gustatu behar zitzaion pertsona horri. Pertsona batzuk ikusi genituen eta azkenean Andres aurkitu genuen. Hortik aurrera entseatzen hasi ginen eta diskoa prestatzen. Oso gustura. Diskoa grabatu genuenean, ordea, ez ginen gehiegi ezagutzen. Dena batera etorri zen. Orain, behin grabaketa amaituta eta kontzertuak emanda bai sentitzen dut talde bat garela eta oso erlazio ona daukagu. Denbora behar da konfiantza sortzeko.

Martxan da zuzeneko bira

NOAUA! Garena Tourrekin aritu zarete hilabete osoan eta leku ugarian. Zer moduz joan dira kontzertuak?

Natali Izagirre: Nahita antolatutako genituen toki ezberdinetan bestela beti jende berdina hurbiltzen da. Ahalik eta jende gehienarengana iritsi nahi genuen eta horregatik antolatutako genituen horrela. Lehena Gasteizen izan zen eta bertan hartu nuen agian sorpresarik handiena, taberna leporaino bete zen. Gazte pila bat hurbildu ziren, baita lagunak ere, asko ahozko transmisioak bultzatuta. Iruñean ere jende dezenterekin egon ginen, ez Gasteizen bezainbeste baina nahikotxo. Zorionak eman zizkiguten gure lanagatik eta asko disfrutatutako genituen kontzertuak. Bilbon akustikoan aritu ginen, lehen aldiz. Oso gustura aritu ginen. Ezagutzen ez ditugun taldeak ikustea joatea ez da ohikoa eta horrek pena ematen dit neurri handi batean. Ez diegu aukerarik ematen ezagutzen ez ditugun talde horiei eta pena da. Bilbon ateak ireki zituztenean kanpoan zeudenak barrura sartzen hasi ziren musika entzutean eta horrek entzuten zuten hori gustuko zutela esan nahi du.

Eta behin kontzertu bira bukatzean, zer?

Apirilean beste bi kontzertu izango ditugu eta maiatzean beste bat. Udarako kontzertu gehiago aterako direla espero dugu. Kontua da festetako egitarau asko jada itxita daudela. Uda pasatzen auzerako gehiago izango ditugula uste dugu, musika estiloagatik edo. Udan jendeak parrandarako gogo handia izaten du eta gure musika beste profil batekoa da zentzu horretan.

#Usurbil
#ElkarrekinBurujaibe



bilera irekiak

HEZKUNTZA

Maiatzak 2, osteguna
19:00 Potxoenean

JUBILATUAK

Maiatzak 8, asteazkena
12:30 Artzabalen

KULTURA ETA EUSKARA

Maiatzak 6, astelehena
19:00 Sutegi kanpoaldean

KIROLA

Maiatzak 8, asteazkena
19:00 Kiroldegian

INGURUMENA eta MUGIKOR- TASUNA

Maiatzak 7, asteartea
19:00 Sutegi kanpoaldean

FEMINISMOA

Maiatzak 9, osteguna
19:00 Sutegi kanpoaldean

GAZTEAK

Maiatzak 18, larunbata
12:00 Sutegi kanpoaldean

ehbildu

Gara egunkaria, kinka larrian

Kinka larrian da urtarri-lean 20 urte bete zituen Gara egunkaria. Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz 1998ko uztailean ilegalki itxitako Eginen 4,7 milioi euroko zorrari aurre egin beharrean aurkitzen da, eta honen bestez, gu guztion babeseta eta bultzada behar du.

Injustizia honi aurre egiteko hainbat herri batzorde osatu dira Euskal Herriko txoko ezberdinetan. Usurbilen baita. Gararen egoeraren larritasunaz ohartarazi diote NOAUA!ri. “Une oso larria da eta kontzientzia hartu behar dugu zer edo zer egin behar dugula, lagundu behar dugula. Egoera oso larria eta kritikoa da eta horretaz kontzientziatu behar gara. Daukaguna galdu baino dugunari eustea errazagoa izango dela”.

Egin itxi zuten garaian Usurbilek erantzun aparta eman zuela gogorarazi dute batzordetik, eta orain ere gauza bera egitera deitzen dute herria.

Gararen egungo egoeraren gaineko xehetasun guztiak ezagutzeko solasaldia antolatu dute maiatzaren 9an 19:00etan Potxoenean. Aipatu egunkariko zenbait ordezkari bertaratuko dira kultur etxera bizi duten egoeraren gai-



Sei hilabetero 500.000 euroko ordainketak egitera behartuta dago Gara.

MAIATZAK 9 OSTEGUNA

Gararen egoeraren berri emateko solasaldia antolatu dute Potxoenean, 19:00etan hasita

neko argibideak eskaintzera. Egoera zail eta bidegabe hau iraultzeko abian jarri dituzten ekimenen, tartean harpidetza kanpainaren nondik norakoekin berri ere emango dute.

Itxiera ilegal batetik

Garari Egin bidegabeki egotzitako zorra leporatzen zaio. Honen jatorria ulertzeko 20 urte egin behar dugu atzera. 1998ko uztailean Egin ixteko agindua eman zuen Espainiako Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epaileak eta “enpresen ondorengoza” ezarri zion Garari 2000ko uztailean. Hiru urte beranduago, 2003ko

ekainean Gizarte Segurantzak aipatu egunkariko enpresa Baigorri eta KIE Egin-en zorraren “erantzule solidario” ebatzi zituen. Gara 4,7 milioi euro ordaintzera derrigortu zuten. Urrunago heldu zen auzia; 2007ko abenduan, auzitegi berak espetze zigorra ezarri zien Eginen arduradunei.

4,7 milioi euroko zorra

Orain 4,7 milioi euro ordaindu beharrean aurkitzen da Gara. Urte hasieran Gizarte Segurantzarekin hitzartutakoaren arabera, sei hilabetero 500.000 euroko ordainketak egitera behartuta dago egunkaria. “Lapurreta bat eta eraso bat prentsa askatasunari” hitzok defintzen dute Garako kideek bizitzen ari direna. “Zentzugabekeria itzela da eta horregatik eskatzen diegu babeseta euskal erakundeei eta laguntza gizarteari”.

10.000 harpidedun berri behar dituzte

Egoera bidegabe honi aurre egiteko harpidetza kanpaina abiatu du Garak, erronka argi batekin; ekainerako 10.000 harpidedun gehiago eskuratu nahi dituzte. “Milaka herritar solidario horiek behar ditugu bi urte hauetan gure aldameneari GARaren aurkako lapurretari aurre egin ahal izateko. Denon artean komunikabideen euskal ekosistemaren aniztasuna bermatu beharra daukagu. Gure balioak eta gure proiektuak defendatu behar ditugu”.

Harpidetza egiteko aukera eta konpromiso maila ezberdinak dituzue eskura. Informazio gehiago eskainiko da maiatzaren 9ko hitzaldian. Argibide gehiago jaso ditzakezue baita, bideotatik: naiz.eus atariko “Harpidetza” atala, 943 316 999, harpidetzak@gara.info eta Portuetxe, 23-2a. 20018 Donostia helbideetan, edo Gara babesteko Usurbilen sortu den herritarren batzordeak asteotan herrian jarriko duen mahaian baita.

Ekainaren 9an, elkartasun jaialdia Illunben

Kanpaina honekin batera, asteburuan Gara babesteko kanpainarekin bat egin duten euskal sortzaile hainbatek, tartean Jose Luis Zumetaren xafla bat eskuratzeko aukera izango da egunkariarekin batera.

Elkartasun jaialdia Illunben izango da azkenean. Sarrerak salgai jarri eta berehala agortu ziren arren, aste honetan txartel gehiago jarriko dira salgai naiz. eus/sarrerak atarian.

Jexux Artze oroitzeko ekitaldiak

Maiatzarekin bat, urtero bezala Jexux Artze Kultur Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu Sutegin.

Maiatzak 4, larunbata

■ 19:30 Lau Sasuak Vivaldiren Lau Urtaroak euskal instrumentuekin (kontzertua).

■ Parte hartuko duten musikariak: Arranoa hari laukotea, Mixel Etxekopar, Paskal Indo, Paskalin Xabaño eta Parrik Larralde.

■ Sarrerak: Lizardin 8 euro aldeztatik, 10 euro egun berean (lehiatilan).

Maiatzak 10, ostirala

■ 20:00 “Soinujolearen Semea” filma.

■ Zehaztasunak: Fernando Bernuesek zuzendu duen pelikula honen gidioia Patxo Telleriak idatzi du Bernardo Atxaga idazlearen nobela ezaguna egokituta.

■ Sarrerak: 5 euro Lizardin aldeztatik eta egun berean lehiatilan.

Maiatzak 11, larunbata

■ 20:00 “Zoaz Pake Santuan” (antzezlan)

■ Zuzendaria: Begoña Bilbao.

■ Aktoreak: Ane Gabarain eta Mikel Laskurain.

■ Sarrerak: Lizardin 8 euro aldeztatik, 10 euro egun berean (lehiatilan).

Maiatzak 24, ostirala

■ 20:00 “H-Arztetik, poesia musu zapietan” (ikuskitzuna)

■ Egileak: Txakur Gorria kolektiboa (Malen Amenabar, Mariñe Arbeo, Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal) eta Peru Galbete musikaria.

■ Sarrerak: Lizardin 8 euro aldeztatik, 10 euro egun berean (lehiatilan).

Jolasean, Andatza Egunera

Andatza Egun indartua eta jostalaria dator-kigu aurten. Izen bereko Usurbilgo mendizaleen bilguneko zuzendaritza talde berriak urte amaieran aurreko kideen lekukoa hartu eta ibilbide berri bati ekitea erabaki zutenean, argi zuten; Andatza Eguna indartu nahi zuten. Helburua bete dute, herritar eta eragile gehiagorekin elkarlanean.

Maiatzeko lehen igande honetan, urte luzeetako tradizioa berritzeko aukera izango da honenbestez; Andatzara igo, hamaiketako gozoa dastatu eta jolaserako tartea izango da. “Giro ederra izango da”, adierazi diote NOAUA!ri Andatza M.K.K.-tik. Herritarrak ospakizunotan murgiltzera animatzen dituzte.

Oraingoan, osagai berri bat izango du Andatza Egunak; jolasak. Eskola Kiroleko proiektua berritzen ari diren Zirimarako hezitzaileen eskutik Andatzara familia giroan eta jolasean igotzeko gonbita luzatzen dute. Erle Egunean egin zuten antzera, familia plan be-



Maiatzeko lehen igande honetan, urte luzeetako tradizioa berritzeko aukera izango da.

ria prestatu dute. “Sorpresaz betetako igoera izango da”, iragarri dute Udarregi Ikastola, Usurbilgo Udala eta NOAUA! Kultur Elkarteak sustatzaile gisa dituen proiektuko hezitzaileek. Jolas batean parte hartzera animatzen gaituzte Andatzara igotzeko.

“Behin Andatzara igotakoan, familia argazkia atera eta beste jolas batzuetan parte hartzeko aukera izango da. Beherako ibilbidea bakoitzak nahi duenean egingo du”, berri eman dute. Andatzara igotzeko hiru abiapuntu finkatu dituzte.

Maiatzak 5, igandea

■ 9:00 Ibilbideari ekiteko lehenengo hitzordua: Usurbilgo

dema plaza.

■ 9:30 Ibilbideari ekiteko bigarren hitzordua: San Estebango ermita. Haurrekin egiteko egokiagoa. Ibilbidea jolas batean parte hartuz egingo dugu.

■ 10:00 Igartzazabal baserrian ibilaldian sartzeko aukera.

■ 10:30etik aurrera, pintxoak eta sagardoa Andatzako bordan.

■ 12:00 Familia argazkia Andatzako borda parean.

■ 12:05 Jolasak Andatzako zelaietan Zirimararen eskutik.

■ Oharra: parte hartzea irekia.

■ Antolatzaileak: Andatza M.K.K., Zirimara (Udarregi Ikastola, Usurbilgo Udala eta NOAUA! K.E.) eta Santueneko lagunak.

Mendi orientazioko ikastaroa emakumeentzat

Patri Espinarrek gidatuta eta Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatuta, maiatzaren 11tik ekainaren 15era, larunbatero, 9:30-13:30 artean. Lehen eta bigarren saioak Potxoenean egingo dira, gainerako lauak mendian. Izena aurrez eta doan eman daiteke bideotatik: parekidetasuna@usurbil.eus edo 943 377 110.

Teorikoa eta praktikoa

“Emakumeon artean mendizaletasunak gora egin du

azken urteetan, baina sarri gizonen gidaritzapean egingo ditugu mendi irteerak. Ikastaro honetan autonomia osoz, guk geuk erabakitako lekura joateko ibilbideak diseinatzen ikasiko dugu baita baliabideak eta gaitasunak eskuratu ere. Mendian era segurua batean ibiltzeko orientazioko oinarriko ezagutza teoriko-praktikoak jasoko eta landuko ditugu. Horretarako, mapa eta iparrorratza erabiltzen ikasten jarraituko dugu era praktikoa batean”.

Domina gehiago

Judo Klubekoentzat

Domina ugari irabazi dituzten azken aldian Usurbil Judo Kluba. Tartean, lurreko modalitate berri batean, Jiu Jitsu Ne Waza izenekoan.

■ Juniorren Espainiako Txapelketa Madril: urrezko domina Mafer Carazasek (-48kg), brontzezkoa Paula Santamariak (-78kg).

■ Jiu Jitsu Ne Wazako (lurreko lehia) Espainiako Txapelketa: urrezko domina Iker Lizarribarrek (+94kg). Brontzezko domina bana Andoni Aizpuruak (-62kg) eta Julen Alzasek (-69kg).

Soinketa erritmikoko topaketak

Tximeleta taldeen urteroko topaketak maiatzaren 11n (16:40-18:15) eta maiatzaren 12an (9:35-13:40) Oiarde Kiroldegian. Urtean zehar egituko lana erakutsiko digute Oartzun, Donostia, Pasaia eta Usurbilgo 400 bat gimnastek.

Gomazko paleta txapelketa

Pagazpe Pilota Elkartek emakume nahiz gizonentzat antolatutako txapelketako neurketak maiatzean hasi eta Usurbilgo jaietan amaituko dira. “Gomazko pilotaz jokatuko da, bikoteka eta partidak ostegun eta larunbat arratsaldetan izango dira”.

Martxan da Usurbilgo 47. Pilota Txapelketa

Asteburuan abiatzeko zen Pagazpe Pilota Elkartek antolatutako txapelketa. Usurbilgo jaietan ospatuko diren finalak heldu artean, astebururo (ostiral arratsaldeetan eta igande eguerdietan) jokatuko dituzte neurketak, ekimen honetan lehiatuko diren 16 bikoteek. “Euskal Herriko pilotari afizionatu onenak izango ditugu ikusgai Usurbilgo frontoian”:

- Lizaso - Urbietta (Villabona).
- Urbietta - Urruzola (Asteasu).
- Etxaniz - Otermin (Bergara).
- Urkizu - Labaka (Hernani).
- Urmeneta - Aranburu (Errenteria).
- Elizegi - Osa (Andoain).
- Ruiz Larramendi-Quina (Lazkao).
- Azketa - Elizegi (Zegama).
- Otxandorena-Landiribar (Ultzama).
- Apeztxea-Murgiondo (Azpeitia).
- Egiguren - Aizpuru (Amezketak).
- Santxex - Exposito (Astigarraga).
- Astiz - Gaskue (Ultzama).
- Aldave - Canabal (Iruñea).
- Santxo - Alduntzin (Usurbil).
- Nazabal - Arbizu (Iruztzun).

Esther Arrojeria eta Estitxu Berasategi, Erreginaren Kopako txapeldunak



Super Amara Bera Bera eskubaloit taldekoak, aurreko igandean, kopa jaso berritan.

Super Amara Bera Bera eskubaloit taldea nagusitu da Erreginaren Kopan. Donostiako taldeak BM Aula

Alimentos de Valladolid taldearen aurka jokatu zuen finala eta 17-30eko emaitzarekin eskuratu zuen garaipena.

Esther Arrojeria eta Estitxu Berasategi usurbildar jokalariek garaikur berri bat erdietsi dute. Zorionak!

Usurbil K.E.-ko jubenil mutilek Espainiako Sektorea jokatu dute

Jon Aizpurua eta Xabat Belokiren taldea Madrilen izan zen apirilaren 12ko asteburuan. Euskadiko txapel-dunak ditugun Usurbil K.E.-ko jubenil mutilek Espainiako Sektorean parte hartu zuten. Bidelagun izan zituzten eskubaloit klubetik helarazitako ondoko argazkian ikus dezakezuenez, jokalariekin joandako lagun, senide eta zaletuak.



Madrilera ez ziren bakarrik joan. Senide zein zaletuen babesa izan zuten.

Futbola Haranen

Maiatzak 4, larunbata

- 9:30 Infantil neskak: Usurbil F.T.-Amaikak Bat KE
- 10:45 Infantil mutilak A: Udarregi F.T. A-Zumaiako FT A
- 12:30 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Ostadar SKT B
- 16:30 Erregionalak: Usurbil F.T.T-Touring KE

Bazpi taldeak emaitza onak lortu ditu Espainiako txapelketan

Tafallan ospatutako Espainiako txapelketan lan ona egin du pista estaliko proba ezberdinetan. Kadete mailan, Beñat Carbayedak urrezko domina lortu zuen scratch-ean. Zilarra eskuratu zuen taldekako jazarpen proban Haimar Etxeberria taldekideak eta selekzioko kide Eder Moreno eta Aimar Seinzekin batera. Haimar Etxeberriak halaber, zilarra eskuratu zuen taldekako abiadura proban Ibon Diaz eta Kimetz Etxaberekin.

Junior mailan, Jaime Morenok eta Asier Pozok urrea lortu zuten taldekako jazarpen eta abiadura probetan selekzioko Markel Rodriguez, Telmo Semperena eta Ekain Jimenezekin. Horrez gain, Jaime Morenok bakar-kako jazarpenean zilarra eskuratu zuen.



Tafallan jokatu ziren pista estaliko probak.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Iggogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzean. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitzak 60m² eta garajeak 22m². 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60.

Alokairuan

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila ga-

biltza. Bi neska gara, biak lanean, arduratsua eta garbia. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanean, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-letal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 giletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe-

luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rrorburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administrari-dendari baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interesatua bazau, deitu 943 361 114 edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguru-etako kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguru-etan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrek emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrek emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorpuzaldiak@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegi-gian, info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrerara altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest.



Zorionak Jare!

Apirilaren 10ean 3 urte bete zenituen eta etxeko denon partez, muxu pilla txikitina!!



Zorionak Mare!

Apirilaren 20an 4 urte jada gure etxeko polittak. Maite zaitugu!



Zorionak Eiden!

Apirilaren 22an 6 urte bete dituzu. Muxu potoloak etxekoen partez! Askio maite zaitugu!

Heriotzak

Felixa Aizpurua Agirre

93 urterekin hil zen apirilaren 11n



11:00etatik - 17:00ak bitartean.
Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko.

Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldez. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan

lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztua (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo per-sona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo aste-burutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak

edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. Telefono zenbakia: 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxek garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak

edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, ospitalean, baserrian. 632090146

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatrico eta lehen laguntzako eza-gutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesez arrazak txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. Tel. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat galdu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Iزارo

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noau! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskatel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 02 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 03 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloila 9. Lasarte

Larunbata 04 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 05 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 06 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astearte 07 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 08 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Maiatzak 02 - Maiatzak 12

Osteguna 09 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloila 9. Lasarte

Ostirala 10 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 11 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 12 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda maiatza

03 ostirala

- **Kontukantoi taldearen saioa** 17:30ean Bihurri Txiki ludotekan.

04 larunbata

- **Harria Hitz bisita gidatua.** 10:00etan Usurbilgo frontoitik abiatuta.
- **Txirikorda definitzeko prozesu parte hartzailea.** 12:30ean Sutegin.
- **Lau Sasuak kontzertua Sutegin.** 10 euro egun berean, lehiatilan. Aurretik 8, Lizardin.

05 igandea

- **Andatza Eguna** 9:00 Frontoitik hasita.
- **Munduko dantza estilo ezberdinen erakustaldia.** 18:30ean Sutegin.

Kultur altxorretan barrena bisita

Harria Hitz bisita gidatua antolatu du Usurbilgo Udalak larunbaterako (maiatzak 4). 10:00etan abiatuko da frontoitik. EHU-ko Artearen Historiako irakasle Ismael Manterolaren gidaritzapean, herrian barrena ditugun kultur altxorrak sakonago ezagutzeko aukera izango da; Dema plaza, Udarregiren omenezko eskultura, Zumetaren eta Tapiaren muralak, Mikel Laboa plaza eta eskultura... Bisita doakoa den arren, parte hartzeko asmoa baduzu, aurrez eman ize-na bideotatik: 688 81 80 17, info@kultour.pro. 25 lagunentzako lekua egongo da.



“Harria Hitz” bisita gidatua 10:00etan abiatuko da frontoitik.

Kontukantoi, ostiral honetan ludotekan

Kontukantoi taldearen “Amonaren be-larriak entzundako kontu txiki eta handiak” saio kontatu eta marraztua antolatu du Bihurri Txiki ludotekak ostiralerako (maiatzak 3) 17:30ean. 2-6 urte arteko haurrei zuzendua egongo da hitzordua. “Denek esaten dute gorra dela amona. Baina amonak badu sekretu bat, belarri supersoniko eta ultrasonikoak ditu. Entzuten ditu beste inork entzuten ez dituen kontu txiki eta handiak. Hauetako konturen bat entzun nahi al duzu? Guk kontatuko dizugu”.

Munduko dantzen erakustaldia

Dantza erakustaldia antolatu dute igande honetarako Sutegiko auditorioan. Sarrera 2 euro. Warda Mallalek antolatuta, “mundu osoko dantza estilo ezberdinak erakutsiko dira bai umee, bai helduek dantzatuta. Bilboko, Gipuzkoako leku ezberdinetako eta baita Usurbileko taldeek parte hartuko dute bertan. Adin guztientzako ekitaldi polita, sentimenduz egina”.

- Maiatzak 5 igandea.
- 18:30ean Sutegin.
- Sarrera: 2 euro.

Datozenak

Baserritarren Eguna

San Ixidro Eguneke ospakizunak maiatzaren 12ra aurreratu dituzte aurtentzen. Hauxe iragarri duten egitaraua:

Maiatzak 12, igandea

- 11:15 Hamaiketakoako frontoian.
- 12:30 Bertso saioa Ane Labaka eta Sebastian Lizasorekin.
- 14:00 Bertso-bazkaria Artzabal Baserrian. Txartelak salgai Alkartasun eta Artzabalen maiatzaren 11ra arte. Prezioa: 25 euro.
- 18:00 Giza proba 3.800 kiloko Usurbilgo Harri Handiarekin:
 - Emarri, 22 emakumezko taldea.
 - Txorierri, 4 + 2 talde mixtoa.
 - Lasuen, 4 + 2 talde mixtoa.

Antolatzailea: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba.

Laguntzaileak: Usurbilgo herri-kirol taldea eta Usurbilgo Udala.

KzGuneako ikastaroak

Maiatzean goizez, 9:00-13:00 artean zabalduko dute KzGunea.

- Maiatzak 2-6, 9:00-11:00 “PC, teklatua eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu”.
- Maiatzak 7-20, 9:00-11:00 “Oinarrizko Interneta”.
- Informazio gehiago: tutor.usurbil@kzgunea.net 943 023 684

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5



ORIANTE
Institutua

2019-2020
IKASTURTEA


**Onarpena
Batxilergoa**

ESKAERAK

On-line
2019ko maiatzaren
2tik 13ra arte

Ikastetxean
2019ko maiatzaren
2tik 14ra arte

 Zientziak eta
Teknologia

 Giza eta
Gizarte Zientziak

 Publikoa

www.oriarte.eus

31 ETXEBIZITZA BERRI UGARTONDON



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa

943 30 29 20

www.sukia.com

 **sukia**
Zure etxean zaude



*amaren egunerako,
aukera zabala!*



URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55